

## ORIXEREN OMENEZ (BERE IRU ESKUTITZ)

### «Orixe», euskal idazlea

Edozer gauzari gaur, eta edozeiñei, «karisma» ta «karismadun» deitzen dautsogu: futbolista bati, igerilari bati, idi-probalari naiz arri-jasotzaille bati... Zer da, karisma? Edo-ta karismadun izatea? Ba al dakizu? Olako itz asko darabilguz gaur zer esan nai daberen ziur ez dakigula. Barrero esanik be, zer adierazo gura dau itz onek? Zu sartu al zara inoiz «karisma» itz onen leza barruan, beronen izatea aztertu ta jakin nairik?

Lau-bost urte dirala nik, gau baten, Donostiko karmeldar komentuan lo egiteko izentatu eusten gelan aurkitu ta irakurri neban olako liburuxka mamintsu bat. Ogera orduko asi nintzan bera irakurten eta, giro otz samarra zanarren, osorik irakurri arte ez nintzan oian sartu. Eliz-joera leneratu guraz kezkatan dabil-tzanen girokoa zan.

Gaur Larrea'n, neure gela atsegintsu onetan, lan biribiltzen asi aurretik, itz au egunerokoan irakurri ondoren, kirolzaleei buruzko doe ta gaitasunak aitatuz nunbait, neure arasako erdel iztegia begiztatu nai izan dot. Ona zer diñoan: *charisma*, latinetiko itza, eta au *jarisma* griegotik, aditza *jarizomai* (ategin izan, mese-deak egin). Goigoitiko doai bat dozu, beraz, bai mirariak egitekoa be, Jainkoak gizaki bati emona, adibidez, eta zentzun zabala-goan, aurrelari batek giza-taldean buru lez agertzeko dauan jen-

te doaia. Gaur esan-nai oni begira erabilli oi dogu geienbat.

Eta au kirolzale ta politikuen artera zabaldu ba'dagoagu zergaitik ez idazleai gagokiezalarik? Ez, jakifia, edozein idazlez, baiña bai gizon osoa lez euskal literaturari emonik, ainbat liburu eder itxi dauskuezanak goralduz? Besteai ezer kendu barik, orrein artekoa dogu «Orixe». Aurten, ain zuzen, 25 urte il zala. Eta KARMEK-ek, jazoera au ixillik laga nai ez-ta, bere oroitza pikortxua, esker onez, eskifii gura izan dautso.

\*\*\*\*\*

Orixe Jainko-zale lez ta euskaltzale lez aundinetakoa dogu. Nikolas Ormaetxea, Oresa'ko «Iriarte» etxean jaiio zan 1888-12-5'an. Oresa'n jaiio arren Uitzii naparroan emon eban bere umezaroa, eta mesede ikaragarria egin eutson aurtzaroa an igaroteak. Antxe ikasi eutzun, ume-lagunai ta etxeko zarrai entzunez, gero ain ederto erabilli eban izkera, itz ugari ta joskera. Amaika urtetan ibilli zan ango eskolan euskaldun maisu bategaz; gero, bost-sei urtetan lanean ekin eutson, nekazaritza, artzaintza ta basoko lanak ondo ikasiaz, eta berarekin ebiltzanen aotik euskera bikaiña. Orrez gain, berak olerki baten diñoskunez, Jainko-zale izaten ikasi eban.

Amazazpi urtegaz, 1905'an, Jabier'era joan zan, maisu ta apaizak ara eraginda, Jesusen Lagundiko izateko asmoz. An urte bi egin ondoren, Loiola'ra, nobiziadu egin eta Giza-Letrak ikastera; emen iru urte osoturik, 1910'an Burgos'era bi urtez klasi-kuak ikasten; 1912-14'an Oña'n daukagu filosofia ikasten, ondoren Komillas'en daukagu ta Karrion de los Konde'sen; Tudela'n eta Jabier'en urte bi eginik, 1921'an Oña'n dago Teologia ikasten, eta azkenez, 1923'an, Oña'tik Jabier'era aldatu ta ementxe egoala, ikasketak eten eta Jesusen Lagundia itxi egin eban.

Lagundia itxi ta 1931 artekoa beintzat Bilbo'n emon eban Azkue zanaren aldamenean. Zortzi urtez Bizkaiko uriburutik zabaldu zan Orixe'ren eragin bipilla. Azkuek beragandu eban eta «Euskera»-n lan egiten asizan, euskal itz eta eserak batzen, Bizkaian ez-ezik Euskalerra osoan be bai ango ta emengo base-

ri, eritxo ta uriak arakatuz. «Euzkadi» egunkarian -1924-1934- euskeraz naiz erderaz idazten ekin eutson. Eguneroko onen «Euzkal Atala», Kirikiño'k itxi ebanean, 1928'an, beronek artu eban aren lekua.

Bost bat urte, 1931'tik 1936'ra, Orexa'n emon ebazan. Urte orreitan osotuak ditudu «Barne-muinetan» eta «Euskaldunak» poema. Gerra aldian Frantzi aldetik ibilli jakun batez be; ementxe itzuli euskan, geldi egotekoa etzan-eta, *Misala* edo «Urte guziko meza-bezperak» deitua, Donibane Lohitzune'n eta Betharram'en eta Baigorri'n batez be bizi izanik. Ondoren, zori billa lez, Argentina'n, Txile'n eta El Salvador'en ibilli jakun, bertan idatzirik liburu eder-eder bat, «Quito'n arrebarekin» (Euzko-Gogoa, 1950), mistika gaiak dardaraziz. Urrengo urteetan Lazkai, Tolosa, Orexa, Arama ta Añorga'n bizi izan zan, beti euskerari lotua. Azkenik Añorga'ko Zabalegi'n il zan 1961-8-9'an. Polloe'n lurra emon jakon aren gorpuari, Euskalerriko euskaltzale, idazle, olerkari ta jakitun geienak parte arturik.

\*\*\*\*\*

Barrua idatziz utsitu oi dogu. Klasiku formaziño bikaiña artu eban Orixek. Eta ekiana erakutsi gurarik, 1917'an asi zan idazten «Jesus'en Biotzaren Deya»-n ain zuzen, gero 1961'arte orrelaxe jarraituz. Urte gitxitan ospe aundiko egin zan, 1919'an beintzat, Euskaltzaindia sortuta laster alkarte ontako urgazleen arteko izentatua izan zan Naparroa aldetik. Geroztik lan aundia burutu eban Orixe'k Euskaltzaindiaren altzoan. Orrela ke ta su euskal lanari lotua ibilli jakun Euskalerra barruan eta erbesteetan zear.

Baiña, orita guzti be, Orixe'k ba-zituan arantza bi bere muiñean. Lan asko ta ederra egiñarren, etzan eltzen euskaltzain osoa izatera. Ezta, olerki-batzaldietan be, ez eutsoen saririk emoten. Samur-bera zan, eta arantza biok ekarten eutsoen larri-miña etzan txikia noski. Azkenez eldu jakon ordua Euskaltzain aurkura igoteko, 1958'an Euskaltzaindiak Leitza'n eratu eutson euskal egun gogoangarrian; antxe egin eban Orixe'k, euskaltzale jatorrez inguratuta, bere sarrera itzaldi sakon eta jakingarria.

Andik urte bira uxatu jakon bigarren arantza. Orixe poeta izan arren, giza-semeon maltzur-jokatzeagaitik, olerki batzaldietan ez eban egundo sari berezirik eskuratu. Errenderi'ko sariketan asita, ogetamar urtean, 1960'arte, arantza biziak zauritzen eutson barrua. Esan urte onetan, alan be, Olerti Eguna Larrea'n; lau sailletan banandu ziran olerki guztiak, liriku, poema ta bertso arruntak. Leenango saillean Orixe'ren «Argia Bera» saritua.

Berbera etorri zan jai ortara, baiña bere olerki saritua, ta bizkaitar idazleak gorai patuz itzaldi mamintsu bat irakurri be. Urduri ebillen pozaren pozez, ainbat olerkari ta idazle punterengoz inguraturik eta ain abegor ona eginda bere burua ikusirik. Sei-zazpi aldiz bota eustan: «Ez daki berorrek, Aita Onaindia, zelako poztasunak nadukan. Orain arte arantza bat erabilli dot biotzean; eta gaur arantza ori atera daustazue». -«Zergaitik, jaunna» -«Ara, auxe da nik euskal olerti-saillean lenengoz jaso dotan saria». Andik laster izan eban, egia esan, beste sari-jasotze bat be: Tolosa'n, 1961'garren urtean, Euskaltzaindiak ipiñitako «Lizardi» poesi-saria irabazi eban bere *Lau urtarook begietan* eritxon lanaz.

\*\*\*\*\*

Idazle oparoa gertatu zan Orixe. Onen lamik geiena liburuetan daukagu: baiña ba-daukagu oraindik or-emengo aldizkarietan sakabanaturik dagoena be. Ona urtez urte aren libururik nagusienak:

1) *Santa Cruz Apaiza* (Donostia, 1929); 2) *Tornes'ko Itsu-mutilla* (Bilbao, 1929); 3) *Mireio* (Bilbao, 1930); 4) *Barne-muinetan* (Zarautz, 1934); 5) *Leoi-kumea* (Paris, 1948); 6) *Urte guziko mez-bezperak* (Tours, 1950); 7) *Euskaldunak*, poema (Zarautz, 1950); 8) *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak* (Zarautz, 1956); 9) *Jainkoaren billa* (Bilbao, 1971); 10) *Mamutxak* (Baiona, 1962); 11) *Itun Berria* (Donosti, 1967); 12) *Salmutegia* (Donosti, 1967) eta abar.

Idaztiori nik ezer ezarri bage, ona iru beñenai buruz iru euskal idazlek diñoskuena. Zaitegi'k ona «Euskaldunak» poema aipatuz: «50 urteotan, euskerak gora-aldirik bizkorrena izan du.

infolaz ere. Aurrerantzean gain-gorago nekez joko du euskerak, zenbait arlotan, beintzat. Zernaitan gainbera joko dun beldurrago nauzu nunbait. Etsai-moltsoa eusko-gogoa zauritu ta iltzeko aleginka ari izan arren, euskeraren orañaldia urdin ikusten dizut. Eztaietan dut euskera. Or duzu lekuko «Euskaldunak». Ez da azaldu ustel, euskaltzaleen ustea. Zuziatzeko beldurrik gabe ai-

*agintan gure: Berroak e. Pitarpieta ibi. Oñate ta. Deltako benera...  
 chian abate murgospe - azpaldi ed kuni erantia gelako bat - dita Moxde-  
 kin, hakeleikin eta beale, lagunekin, Durian an dago Mazon, lanna  
 Miniat: ta cecltura, arera, triaki. "Ez poema ez haurta, per A jall  
 In una cosa: bi felta sen cullamante poema". Abatek leza, of, lmaq-  
 ta abatek du, alon de puchi ta, Ezaki diki tamulaz, liz, certitit erukhi-  
 tadu edo on. Miniatko bi de olango murgospe k - Euren edo k gure, gure  
 firi edo ta, letaki oran orara acchi-bita. "Hizk ghaen bi noni, de dicit  
 ez izkeran, or diki mazon. "Musi gramen gramen... si centum  
 mortuum parit..."*

*Deas, edo kenda egisua bi bestas orit ed ex ean.  
 dicit "In honore diti" hiein, sari emon entorenik, "bi dila mag  
 lara ta rantik dicit de nure alde iskatutako. bi oian o ser. "Et ha-  
 sitatit cum bestis" eta "Bernardo k Alia" purap muerke.  
 Ea eta literari eta "Mila euskal-olaki bikain" onurak lann?  
 Aiate gatan ta oneraz erantulea, sere orapida eta dicit.  
 Monast*

*Orize*

ortu dezakegu: badugu gure poema nagusia. Areago oraindik: non-naiko ta noiz-naiko poema bikaiñenak bezin bikaiñia. Ta zenbait saietsei begiratu ezkeru, gurea bikaiñagoa, erritarragoa, alegia.

Eta Andima Ibiñagabeitia'k, 1951'an, «Eusko-Gogoa»-n: «Gaur-gero, euskaldun eliztarrek -«Urte guziko meza-bezperak» liburuaz diardu- ba-daukate goi-argiz gogoa nun ase. Amaikatxo eliz-liburu argitarazi dira euskaldunen artean, meza, otoitz, eta edonolako eraspenez kuin-kuin. Eliz-liburu egoki ta betarik ordea, ez geunkan. Orainartekoak egile bakoitzak asmatu otoitz eta eraspenez egokituak ziran geienak. Beste batzu eliz-otoitz ia-torrez, bainan otoitzok erdizka baizik ctzizaizkigun emanak izan. Labur esateko, eliz liturgi osoari zegokion idazia etortze-koa zitzaigun. Gaur berriz, euskaltzale kartsu batzuen laguntasun

eta Orixe maixu aundiaren kemen-adoreei zor, inoiz euskeraz sortu eliz-libururik bikainenaren iabe gaituzute».

Eta «Jainkoaren billa»ri, J.M. Aranalde'k onela: «Orixe'k, bere kristau-zitua, liburu ontan ematen digu. Ura, giputz, bizkaitar eta lapurtarrek Uitz'i'n erein azitik zatorkion. Au, amona Maria-xuntxik biotzean areinekotik datorkio. Euskaldunek, ai ainbat esker eman beziote oni. Dakitela naiz ez dakitela, «Jainkoaren billa» dabilizan guziek, or arkituko dute Arenganako bidearen izena ta izana: Jesukristo, bide bakarra ta betea».

Aita Onaindia

### Orixeren iru eskutitz barriak:

†

Zaragoza'tik 3-II-53

Errezola'tar Martzelino jaunari. Igeldora.

Jaun apaiz agurgarria: Eskerrik asko zure itz beroengatik. Bialdu didazun beste Arantzazu'ko Egutegiaren orri orrek intsentsu geixeko ematen dit; bafian aldarerako bedi, ni aldarepean izkututzen naizala. Dabid'en antzera au egingo dei, argitaratzeko bertso batean diodan bezala:

«Bil-bil egin naiz neronengana  
auspean sua bezala,  
pizturik nagon, itzali naizan  
neronek ez dakidala» (Cfr. Ps. 130)

Intsentsua lurrintzen dun nere ikatz bizi orri ere ausa bota diote: «Su poema es muy hermoso, pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesia». Au dionak bi bertso-liburu argitara emanak ditu. «No se empeñe en hacer versos, no digo ya poesía, porque Dios no le llama a eso». Au diona Barojatar oietakoa diteke. Nik gordinkeri aundiak esan ba'nitu, naiz Jainkoa ukatu ba'nu, ordun nitzake gizon aundia doakabe oientzat. Orrek pozten nau. Poema ta beste oiek baño gauza obeak baditut egiñak emen Ameriketean. Noizbait agertuko al dira. Guatemala-

nik adiskide bat Lenguedoc'tarra dakina - etxean ala mintzo baitira -, prantsesa «a la perfection» dakina, espainola ere oso poliki ta... ez omen du Mistral ulertzen. Neologismo asko omen ditu. Au da, prantsesez erdi-espainolez obeki dagola provenzal'ez baño. Literatura ortaz kontu asko kontatu digute.

«Zure lan berri «Argi-erri» dalakoarekin amets asko egin dut» diostazu. Zer poza eman didazun zure itzeekin! Lan ori izan nun nere bizi guziko ametsa ta bukatu nunean **Nunc dimittis** esan nun. Damurik luzatzen du argitara ateratzen! Aurrera ta geiago gustatuko zaitzula dirudit. Sail ori bakarra bereiz aterako nuke. - Jesukristo gure argitasun otoitzean - inperu ta zeru ta oiek utzita. Baña neke gogorrak imprentarekin eta...diruarekin. Dagoneko pozaldi aundiak artu ditut, kolkotik kolkora eman dizkidaten iritziekin. Kristau barnekoiak, naski, apaiz-jende ta emazteki elizkoiak. Zaitegi apaizak au esan zidan: «Inork inoiz ez du olako gauza ederrik idatzi euskeraz, ezta Orixe'k ere». Laus Deo. Beste zenbait apaizek ere gauza aundiak esan dizkirate. Laus Deo. Donostiko bi emazterik, batak euskeraz ni ere belarritarra naiz otoitzean; erderaz besteak: «Aquí ha gustado mucho, y se comenta favorablemente la intervención del (beste orria galdua izan da).

S. Onaindiak (Eskutitzak Bilbao 1974, 28-3 orr.) argitaratu ez eban zatia:

†

Zaragoza'tik 26-I-54

(Aita Onaindiari. Larrea'ra)

27-I-54: Addendum. Ikusi dodaz «Intxauspeko alaba» eta «Mertxikaren». Ez ete dira olerki batekoak? Lelengoaren ahapaldi bat olan asten da: «Mertxikaren lorearen ederra (11) bamean du hexurra gogorra» etc. «Mendiak beihe belharrez». Olan dakit nik:

nik adiskide bat Lenguedoçtarra dakina - etxean ala mintzo baitira -, prantsesa «a la perfection» dakina, espàñola ere oso poliki ta... ez omen du Mistral ulertzen. Neologismo asko omen ditu. Au da, prantsesez erdi-españolez obeki dagola provençal'ez baño. Literatura ortaz kontu asko kontatu digute.

«Zure lan berri «Argi-erri» dalakoarekin amets asko egin dut» diostazu. Zer poza eman didazun zure itzekin! Lan ori izan nun nere bizi guziko ametsa ta bukatu nunean **Nunc dimittis** esan nun. Damurik luzatzen du argitara ateratzen! Aurrera ta geiago gustatuko zaizula dirudit. Sail ori bakarra bereiz aterako nuke. - Jesukristo gure argitasun otoitzean - inperu ta zenu ta oiek utzita. Baña neke gogorrak imprentarekin eta...diruarekin. Dagoneko pozaldi aundiak artu ditut, kolkotik kolkora eman dizkidaten iritzielkin. Kristau barnekoiak, naski, apaiz-jende ta emazteki elizkoiak. Zaitegi apaizak au esan zidan: «Inork inoiz ez du olako gauza ederrik idatzi euskeraz, ezta Orixe'k ere». Laus Deo. Beste zenbait apaizek ere gauza aundiak esan dizkirate. Laus Deo. Donostiko bi emazterik, batak euskeraz ni ere belarritarra naiz otoitzean; erderaz besteak: «Aquí ha gustado mucho, y se comenta favorablemente la intervención del (beste orria galdua izan da).

S. Onaindiak (Eskutitzak Bilbao 1974, 28-3 orr.) argitaratu ez eban zatia:

†

Zaragoza'tik 26-I-54

(Aita Onaindiari. Larrea'ra)

27-I-54: Addendum. Ikusi dodaz «Intxauspeko alaba» eta «Merixikaren». Ez ete dira olerki batekoak? Lelengoaren ahapaldi bat olan asten da: «Merixikaren lorearen ederra (11) banean du hexurra gogorra» etc. «Mendiak bethe belharrez». Olan dakit nik:



- 1.- Mendiak bethe belharrez,  
begithartea nigarrez  
lan eginaz urriki dut  
baina probe txurikan ez  
orain hemen niagozu  
sabeletik minez.
- 2.- Ene maitea, zer duzu,  
zerk hola xangrintzen zaitu  
ez du denbora luzea  
zinela penetan sarthu  
plazeraren ondotik  
dezplazera duzu.
- 3.- Erregek gizon ederrik  
guardetan ba du,  
segurik  
Lekunberriko brigadan baño (batzu)  
guzien gaitetik  
neskatxak karesatzen  
ez baitu parerik.
- 4.- Arthoak dire iorratu  
ogiak ere burhutu  
primaderan egin lana  
udazkenean agertu  
ene maitetxoari  
gervia loditu.

(Errege ori Louis Philippe zan; mugazainak berak imini ebazan, eta Baxenabarrek Lekunberri'n zan lenago «postan»).